Araudia

Liburutegia / Dokumentazio-gunea

ivap.euskadi.eus

Q-epea
ZERBITZUEN KARTAK
CARTAS DE SERVICIOS 2024-2026

Definizioa eta helburuak

VAPeko Liburutegia / Dokumentazio-gunea ikerketa eta kontsultarako zentro espezializatua da, gai hauetan espezializatua: Hirigintza eta Ingurumena.

Bere helburuak honako hauek dira:

- IVAPen eta, bereziki, Lurralde Ikasketetarako Euskal Eskolaren (EVETU) berezko eginkizunak betetzen laguntzea, hirigintzaren eta ingurumenaren arloko dokumentazio eta bibliografia arloan laguntzaren bidez.
- Erabiltzaileek hirigintzaren eta ingurumenaren arloan dituzten informazio- eta dokumentazio-beharrei erantzutea.

Erabiltzaileak

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileak.
- Hirigintzan eta ingurumenean adituak diren pertsonak.

Liburutegia / Dokumentazio-guneak datuen babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako printzipio eta jarraibideen arabera tratatuko ditu erabiltzaileen datu pertsonalak.

Bilduma

Funtsak

Liburutegia / Dokumentazio-guneak bere bibliografia-funtsen eta informazio-baliabideen bilduma handitzeko betebeharra du, eskura dituen baliabideetara egokituta, de incrementar su colección de fondos bibliográficos y recursos de información, erabiltzaileei dokumentazio eta informazio egokia eta eguneratua emateko, hainbat formatutan (monografiak, aldizkako argitalpenak, datu-baseak).

Bildumari buruzko informazioa online katalogoan jasotzen da. IVAPeko liburutegiko web-orrian eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko (EIPS) web-orrian kontsulta daiteke.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNU SAILA

Dohaintzak

- Pertsona fisikoek eta juridikoek materiala ematea onartzen da.
- Dohaintzan emandako obrek Hirigintza eta Ingurumen gaiekin zerikusia izan beharko dute.
- Liburuzainek dohaintzaren eskaintza ebaluatuko dute, onartzeko edo ukatzeko.

Desideratak

- Pertsona fisiko eta juridikoek materiala eskuratzeko desideratak edo iradokizunak onartzen dira.
- Iradokizunek Hirigintza eta Ingurumenaren gaiekin zerikusia izan beharko dute.
- Liburuzainek iradokizuna ebaluatuko dute, onartzeko edo ukatzeko.

Zerbitzuak

Liburutegiak /Dokumentazio Zentroak erabiltzaileei eskaintzen dizkien zerbitzuak honako talde hauetan biltzen dira:

Erreferentzia eta informazio bibliografikoko zerbitzua

- Liburutegia / Dokumentazio-guneko sarbide eta erabilpen arauei buruzko informazioa ematen da, baita bertako zerbitzu, funts eta baliabideei buruzkoa ere.
- Liburutegian edo liburutegitik kanpo informazioa eta dokumentuak bilatzeko eta aurkitzeko aholkuak ematen dira.
- Liburutegiko edo liburutegitik kanpoko zerbitzuak eta baliabideak erabiltzeko aholkuak eta/edo prestakuntza ematen da.
- Liburutegian edo liburutegitik kanpo dauden informazioa eta dokumentuak aurkitu eta zabaltzen dira.
- Erabiltzailearen informazio-eskaerarekin lotutako bibliografia espezializatuak egin eta ematen dira.

Irakurgela barneko kontsulta-zerbitzua

- Liburutegia / Dokumentazio-guneko funts guztiak irakurgelan kontsulta daitezke.
- Ordenagailu bat dago irakurgelan Internetera sartzeko.
- Erreferentzia-bilduma zuzenean eskura dezakete erabiltzaileek.
- Bildumako gainerako materialak liburuzainei eskatu ondoren jasoko dira.
- Irakurgela ezin da erabili ikasteko gela gisa, hau da, testu-liburuak, apunteak edo erabiltzailearen berezko beste material batzuk erabiltzeko.
- Kontsulta amaitutakoan, dokumentuak irakurrgelako mahai gainean utziko dira.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNU SAILA

Etxerako mailegu-zerbitzua

- Etxerako mailegua

  Etxerako mailegu-politika desberdinak daude, materialen ezaugarrien eta erabiltzaile moten arabera. Politika horiek zehazten dute zein material mailegatzen diren, zenbat ale eta zein den itzultzeko epea.

- Liburutegien arteko mailegua

  Liburutegiak ez dituen funts monografikoak beste liburutegi batzuetan aurkitzen eta eskuratzen dira, Eusko Jaurlaritzako langileek erabiltzeko. Materiala mailegatzan duen liburutegiaren-arauak errespetatzen dira.

- Erreserba

  Aldez aurretik eska daiteke une horretan eskuragarri ez dagoen materiala, mailegu-egoeran dagoelako.

- Mailegua berritzea

  Berritzea eska daiteke, hau da, dokumentuaren maileguaren itzultzeko epea luzatzea, betiere beste pertsona batzuen erreserbarik ez badago.

Dokumentuen erreprodukzio-zerbitzua

- Dokumentuak erreproduzitu daitezke hainbat bidetan (inprimatzea, fotokopia, eskaneatzea, argazkia)
- Doako zerbitzua da.
- Liburutegia / Dokumentazio-guneko langileek bakarrik erreproduzitu ditzakete dokumentuak.
- Edonola ere, liburutegiari eta erabiltzaileari eragiten dieten jabetza intelektualeko eskubideak errespetatuko dira

Zabalkunde- eta komunikazio-zerbitzua

Liburutegiak Dokumentazio-guneak eskura dituen funts eta baliabideei eta eskaintzen dituen zerbitzuei buruzko informazio eguneratua zabaldu behar du, bere webgunearen eta sare sozialen bidez.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNU SAILA